

# JARDUNALDIA GIDA: GORPUTZAK ETA DISIDENTZIAK ZIBERINDARKERIEN AURKA

DESKOLONIZATUZ • DESIRAK • SEXU-ANIZTASUNA  
SEDUKZIOA • EROTIKA • EMOZIOAK • JAKINTZAK

**#ciberbiolentziaisilaraztendu**



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

enpleguak, giza-arte irakurketa eta  
benifituzko sustatzeko saila  
departamentu de enpleo,  
inclusion social e gaitasun

**Jardunaldia gida:** gorputzak eta disidentziak ziberindarkerien aurka  
**P.3:** Aurkezpena **P.5: Lucía Asué Mbomio:** Hautsa astindu behar diegu gure ispiluei **P.15: Aitzole Araneta:** Takoiak iltzatuz: gogoetak eta baliabideak, dibensexfobiari eta sare sozialetako gorroto transfobikoari aurre egiteko **P.21: María Elgezua:** Burslesquea, sedukzio- eta ahalduntze-tresna gisa **P.27: Itziar Errasti:** Ziberindarkeriak eta gazteria.

**Autoría:** Munduko Medikuek Euskadi Bailen kalea 1, etxabea 48003 Bilbo  
**Ilustrazioa eta maketazioa:** Karina Senatore **Itzulpena:** Labayru Fundazioa **Ordenanza:** Argitalpen hau doakoa da, eta ez da onartzen merkataritzarako erabiltzea. Zilegi da erreproduzitzea, iturria behar bezala aipatuz. Gida hau doan deskargatu daiteke, PDF formatuan, hemen: <https://gender.semilleducativas.org/>



# AURKEZPENA

Sare sozialak gizarte-eraldaketarako konkistatzeke dagoen eremu gisa ageri zaizkigu. Bertan, informazioa trukutzen da muga fisikoetatik harago, baina, era berean, eskura jartzen dizkiguten espazioetan indarkeriak azaltzen dira, eta horiek identifikatu beharra dago, lantzen hasteko eta arreta emateko.

Hori guztia kolektiboki berrikusteko, Munduko Medikuek Euskadi elkarteak GORPUTZAK ETA DISIDENTZIAK ZIBERINDARKERIEI AURKA jardunaldia egin zuen 2022ko azaroaren 19an (larunbata), Bilbon. Bertan, tailer eta eztabaiden bitartez, hainbat gai jorratu genituen: desioaren eraikuntza, sedukzioa, erotismoa eta ziberindarkerien aurreko disidentziak sare sozialetan. Espazio bat ireki zen, eta bertan hausnartu, eta, gure gorputz desberdinen bitartez, estrategia kolektiboak esperimendu genituen, egunero eragiten diguten ziberindarkeriei aurre egiteko aukera ematen digutenak.

Aurrez aurreko ekitaldi honetako hizlari eta erraztaile nagusiak Lucía Mbomio, Aitzole Araneta, Maria Elgezua eta Itziar Errasti izan ziren –zorionekoak gu!–; besteak beste, gai hauei buruz jardun zuten: desioen deskolonizazioa, sare sozialetan sexu-dibertsitatearen aurka egindako jazarpenari aurre egiteko blindatzea, burlesquea ahalduntze-tresna gisa, eta ziberindarkeriak gazteengan duen eragina. Eta orain, dokumentu honetan, aditu horien artikuluek jardunaldi hartan azaldutako eta eztabaidatutako gaiak jorratzen dituzte.

**Lucía Asué Mbomio**



**MORE POWER**

DEFENSE  
BONDS

**NUT CO.**

ST 794201  
1300 PM

# HAUTSA ASTINDU BEHAR DIEGU GURE ISPILUEI

## Lucía Asué Mbomio

Naiarak dio begi-zuloak dituen ile kizkurreko neska dela, besterik gabe. Txikitan onartu zuen ez zela polita, eta lasaituta hartu zuen arnasa, nota onak ateratzen zituenez, bizkorra zela esaten ziotelako. Azken urtean Euskadi osoan unibertsitatera sartzeko proban kalifikaziorik onenak lortu dituzten gazteetako bat da, eta, ederra bada ere, nekez begiratzen dio bere buruari ispiluan; horregatik, saiatzen da trapuarekin ez garbitzen. Hautsez estalita nahiago du, horrela, bere burua ikusi beharrean, sumatu egiten baitu.

Islarekiko harremana bihurria izan daiteke, pertsona beltz eta/edo afrikarren ondorengoak garenez, geure burua gorrotatzen irakatsi badigute, edo —zorionekoa izanda, eta soil-soilik dekonstrukzio-lan latza egin ondoren— erdizka, egun batzuetan, zatika eta tarteka geure burua maitatzen erakutsi badigute.

Horiek horrela, Naiararen diskurtsoa ez zen berarekin hasi, bera jaino baino askoz lehenago baizik. Bere amak edo amonak argia ikusi baino lehen ere bai. Mende batzuk lehenago bilbatu zen, gizakitzat ere hartzen ez zen izakiengan edertasuna ezin antzeman zitekeen garai batean. Hain zuzen ere, horregatik hipersexualizatu zituzten, horregatik eta azala ezkutatu eta naturala zena lotsagarri bihurtu nahi zuen judu-kristautasunak zeharkatu gabeko beren leku beroetan

aurkitzean zuten biluztasunagatik. Gizonezko zis beltzak instintu geldiezineko piztiazat hartzen eta kontaktzen zituzten; zaindu egin behar ziren, emakumeen gainera oldartu eta bortxatu ez zitzaizten. Babestu beharreko emakumeak zuriak, zisak, orbangabeak, errugabeak eta haragiaren arriskuen beldur ziren. Emakume beltzak, berriz, zurien ifrentzua ziren: beti eskuragarri zeuden limurtzaile zitalak, beren esentzia lizunarekin gizon zuriak bekatu egitera bultzatzen zutenak.

**Gorputz beltzak gizagabetzeko prozesua muturrekoa, eraginkorra eta behin betikoa izan zen. Pixkanaka, milioika gizaki gizatasunik gabe utzi zituen arrazakeria gizarteko geruza guztietan sartu, eta interakzio orotan barneratu zen. Hala ere, agian ondoen egiten asmatu zuena garaietara egokitzea izan zen, bere forma aldatuz ez desagertzeko.**

**Lehenik, arima kendu zien afrikarrei. Arimagabeak ezin ziren pertsona izan, garai hartan erlijio katolikoak pisu handia baitzuen eta dena ikusten baitzen bere lentearen bidez. Arimarik gabe, esklabo bihur zitezkeen, zera besterik ez baitziren: lanerako baliagarriak ziren gorputzak, sentimendurik, nahirik, oinazetik eta grinarik gabeak. Abia Yalako jatorrizko biztanleei indarrez ebatsitako lurra lantzeko beso sendoak besterik ez ziren, eta lehortu arte erditzeko gai ziren bagina asezinak, besoak eta besoak eta besoak...**

Ba al zegoen edertasuna sartzerik testuinguru horretan? Ziurrena ez, baina desira bai. Desira gordin, torturazaille eta bortitza, baimenik gabea, ezkutuan asetzen dena, plazer indibiduala eta norabide bakarrekoa bilatzen duena jabetzak ematen zuen eskubideari esker. Tira, bortxaketa eta erantzuteko edo defendatzeko ezintasuna emakume zis beltzen kasuan. Bortxazko sexu-topaketa horien ondorioz izan zituzten umeei “mulato” deitu zieten, horretara baitzetozen mundura, mando (“mula”) gisa lan egitera.

“Mandemeak” esklabo bihurtzen jarraitzen zuten, baina, odol zuria zutenez, uste zuten ez zirela hain piztiak, hain itsusiak, eta behar bada pixka bat gizatiarragotzat joko zituzten, haien odolean gene zuriak baitzeuden. Horregatik, batzuk landatik atera, eta jabeen etxeko lanetarako erabili zituzten. Horrela, haien izaera ukatzen zuten familiakoek hurbilago zituzten, eta etekina atera zezaketen gorputz arbuiatu, desiratu eta bortxatu horietatik.

**“Mestizoak, odola lodiagoa dutenez, gainerakoak baino sutsuagoak omen dira”, idatzi zuen Maryse Condék Desirada liburuan, bere uhartean, Guadalupen, eta Karibeko iruditerian zabaldua zegoen pentsamendu bat jasoz.**

Garai hartako gizarte europarrak orduko artista handienetako batzuek margotu zituzten irudien bidez erretratatu zuen bere burua. Lan horri esker, gaur egun, Historiako liburuek ezkututzen digutena ikus dezakegu: esklabotzaren gaitza eta arrazakeriaren zabalkundea Espainian, amnesikoa izatea eta ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuetan ez kontatzea erabaki baitzuen. Espainiako pinakoteka handi batzuetako koadroetan bi motatako pertsona beltzak daude: baltasar exotizatu, eder eta dotoreak, lumaz eta kolore biziz apainduak; eta esklabo bihurtutakoak, hau da, gehienak. Haien proportzioak txikiagoak dira (Karlos VI.a Napolikoa, etorkizuneko Karlos III.a Espainiakoa, anonimoa), eta beti egoten dira obraren behealdean edo atzean (Rubensen Kalisto eta Diana), bigarren edo hirugarren planoan, hain atzean non haien azal iluna hondo beltzekin nahasten baita, eta arretaz begiratu behar baita hor daudela egiaztatzeko (Frans Halsen Familia-taldea paisaia baten aurrean). Oso adibide grafikoa, komunitate bat ikusezin nola bihurtu erakusteko.

Ikusezina dena ezin da ederra izan, baina groteskoa bai.

**Hala ere, arte plastikoak ez ziren garai hartako lekuko bakarrak izan. Ikusten dugunak gure pentsaera eta hizkera baldintzatzen duen bezala, hitzek ere irudiak sortzen dituzte burmuinean. Hona hemen Quevedoren ahapaldi batzuk, Boda de negros lanekoak:**

**Vi, debe haber tres días,  
En las gradas de San Pedro,  
Una tenebrosa boda,  
Porque era toda de negros.**

**Parecía matrimonio  
Concertado en el infierno:  
Negro esposo y negra esposa  
Y negro acompañamiento.  
(...)**

**Iban los dos de las manos  
Como pudieran dos cuervos,  
Otros dicen como grajos,  
Porque a grajos van oliendo.**



Ezer ez da betiko. Ilustrazioa zabaldu zenean, arimak garrantzia galdu zuen, edo ez zen hain garrantzizkoa, behintzat. Orduan, garezurak eta genitalak neurtzeko txanda iritsi zen. Naturalistak entretenitzen ziren beren sorterritik atera eta hurbiletik aztertzeko metropolietara eramandako jende biluzia marrazten. Hala eguzkiak kiskaltzen zuenean, nola hotzak gogoia ere izozten zuenean, garrantzitsuena aurkikuntza batzuk dokumentatzea baitzen. Gaur egun, badakigu okerrekoak zirela, eta haien teoria arrazistak berresteko baizik ez zutela balio, zuriak eta, haien begien aurrean, zuriak ez izateaz gain pertsonak ere ez zirenen arteko ustezko desberdintasun ebolutiboak buruzko teoriak. “Zientzia” hori desberdintasunaren konplizea izan zen. Lehen etapan, espiritualtasuna kendu zieten afrikarrei, eta pentsatzeko gaitasuna ere bai; muskulura (vs garuna) eta potentzia hipersexualera murriztu zuten haien gaitasuna.

**Giza zirkuen eta zoon urrezko aroa izan zen. Sara Baartmanek, Ota Bengak eta Banyolesko Beltza deitutakoak pairatu zuten, beste askoren artean. Horrela, harik eta XXI. mendearen hasiera arte, orduan, azken hori Afrika australera aberriratzearekin batera, horrelako ikuskizun gaitzesgarriak amaitu baitziren.**

Edertasuna ez zen posible burdin hesien atzean itxi edo beira-ara-setan erakutsitako azpigizakiengan, baina desira bai, azal-kolore desberdina izateagatik desberdin irakurtzen ziren gorputzen fetixizazioz, kosifikazioz eta exotizazioz beterik.

Zoritxarrez, indarrean dirauen herri-sinesmenean, mota horretako pentsamenduek eta zer neurritaraino den egia esperimintatzeko morboak iraun egin dute. Eta, itxuraz, beltzei onartutako gaitasun bakarra sexualitate sutua denez, komunitate bereko pertsona batzuk mitora mugatzen dira, eta ezin dira mitotik harantz baloratu, mende eta mendeetan etenik ez duen narratiba astun hori jasan ondoren. Hedabideek betikotu egin dute, haietan jende beltza agertzen den kasu urrietan estereotipoa indartuz. Haien begiradak orainaldi jarraitu moduko batean geldiarazitako jende beltza besterik ez du erakusten; badirudi iritsi besterik ez duela egiten,

iritsi, ontzi urrietan iritsi ere. Ez diete pertsona ere deitzen, “migratzaile” baizik, berriz ere gizatasuna kenduz. Jende hori ez dugu inoiz ikusten helmugan dagoenean bizitzen. Egunerokotasunaren narratiba falta da, hemen bizi direnena eta ahal duten zereginetan lan egiten dutenena, auzoetan bizi eta auzokide direnena. Bestalde, salbuespenaren diskurtso mediatikoa sartzen da. Emakumeen kasuan, positiboki egituratzen da, eta zerbait egiten duten lehenengoak erakusten dira, “haiek bezalakoak” direnentzat ezinezkoa zirudiena (galarazita zegoelako) lortzen dutenak. Negatiboan, arropa gutxi daramaten emakume nigeriarrak agertzen dira, parkeetan edo plastikozko aukietan eserita, bezeroen zain. Salerosketaren biktima dira, budu-zeremoniak egin ondoren jatorrizko herrialdean harrapatuak. Apartekoak eta aitzindariak edo salerosketaren biktimak ez diren emakumeak ez aipatzea mezu bat da berez.

**Gizon beltzen kasuan ere errepresentazio-bide bikoitza dago: kriminalitatearena edo, positiboan, heroitasunarena. Horren adibide dugu Bilbon gizon zuri bat salbatzeko bere burua itsasadarrera bota zuen mutil senegaldarra. Berehala abiatu ziren kanpainak, gazteak nazionalitatea lor zezan. Horren ondoriozko mezua da gizarteak migratzaile on gisa irakurritako horrek, portaera eredugarria duenak, superheroia denak baizik ez duela merezi egoera administratibo erregular batek dakartzan eskubideak edukitzea.**

Aurreko guztia abiapuntutzat hartuta, zineman edo telesailetan pertsonaia beltzak harreman afektibo batean ikusi ditugunean, gizonaek “perfektuak” izan behar dute onar zitzaten, mesfidantzaz onartuta ere. Sidney Poitierrek paper hori egin zuen Ezetz asmatu nor datorren afaltzera filmean: gizon beltza zen, BAINA trebatua, BAINA lan ona zuen, BAINA eder-ederra zen, BAINA manera bikainak zituen.

Emakumeak, berriz, eder-ederrak dira, baina zurututako patroien azpian daude. Horrek esan nahi du beltzak direla, bai, baina argiagoak, ile lisoarekin edo, bestela, hain kizkurra ez den ilearekin, edo zuriek dituztenen antzekoak diren ezaugarriekin. Horrek eredu estetiko bat markatzen du belztasunaren barruan, zeinak erdizka bakarrik baimentzen duen eta gorputzean bertan esku hartzen duen belztasuna ezabatzeko. Hori dela-eta, Photoshop edo argiztapena erabiltzen da larruazalaren tonu batzuk argitzeko, edo, okerrago dena, krema despigmentatzaileak baliatzen dira; halakoek eguzki-erradiazioaren aurkako hesi naturala desagerrarazten dute, eta dermisa erabat argaltzen, hainbeste non, gero, ebakuntza kirurgiko bat egin behar izanez gero, zaila baita jostea. Beste ondorio bat da emakume batzuek ilea leundu behar izatea lozio gogorrekin, edo luzapenak jarri behar izatea, ez haiek hala aukeratuta —izan ere, hala bada, primeran, bakoitzak nahi duena egiten du—, baizik eta behartuta, egoera batzuetan ile kizkurra txar, ez oso dotore, ez profesional eta desegokizat hartzen baita.

**Aurrekoaz gain, sexyak eta kalteberak izan behar dute, eta, beraz, gizon zuriak diren beren bikoteek salbatzeko modukoak. Hori ageri-agerian dago Palmeras en la nieve filmeko protagonisten arteko harremanean, Allí abajo (bera “mulata sexy” bat da, aldakak haizearen abiaduran mugitzen dituen, eta, Latinoamerikako migratzaile on bati dagokionez, Peio protagonistaren ama zaintzen du; eta Peio, berriz, lotsatia da, eta bere sentsualitatearen aurrean urtzen da) eta Mar de Cristal serieetan (gizonezko pertsonaia nagusiak kapituluen erdia ematen du negutegian lan egiten duen neska beltz ederra erreskatatzen eta arazoetatik ateratzen).**

Eraikuntza horiek guztiak espetxeak dira, eta presoek leku erosoztat har ditzakete, giltzapetuta daudela ez badakite; beraz, ad infinitum performatzen dute beren inguruak interpretatzea baimentzen dien rol bakarra. Sinetsarazi diete ezin direla beste ezer izan, eta poztu egiten dira besteen gustukoak direla eta erakartzen dutela ikusita; irudimenak utzi dizkien soberakinak jasotzen dituzte: gutxirekin edo ezerekin konformatzea.

Maryse Condé idazleak berriro ederki laburbildu zuen esaldi hauekin Desirada liburuan:

“Inortxok ez zuen hura desiratzen. Eskolako edo auzoko mutilek begiratu ere egin gabe egiten zuten aurrera”.

“Azkenean, gizon bati bere gorputza interesatu zitzaion. Besteek beti mespretxatu izan zutena balioesten zuen, nahiz eta, egunez, Stanleyk ezikusia egin”.

Kateak hausten direnean, ondorioak egoten dira. Nia Correiak, Operación Triunfo saioaren edizioetako baten irabazleak, erabaki zuen finalean bere ile naturalarekin agertzea, eta mezu asko jaso zituen Twitter-en bere kontra. Instagramen agertu zen erantzuna, bertan kanpaina bat sortu baitzen #mipelomola traolarekin: dozenaka beltzek argazkiak atera zituzten, kizkur-koroak harro erakutsiz eta ederrak direla frogatuz.

**Sare sozialak, zalantzarik gabe, gorrotoaren eta irainen zabortegei bat dira, eta, horrez gain, “regenarratibak” (narratiba birsortzaileak) hedatzeko espazioa ere bai. Parte hartu nuen hitzaldi batean, batek termino hori erabili zuen, eta, nire ustez, egokiagoa da “kontranarratiba” baino. Azken horrek hegemonia erdigunean jarri, eta erantzun egiten du; lehena, berriz, hutsetik abiatzen da. Uste dut hitz horrek ez dituela batzen bazterretan bizi diren pertsonak erreplika hutsean, baizik eta beren agenda eta sorkuntza propio eta libreak onartzen dituela, eta ez defentsa-ezkutu edo erantzun gisa.**


Ildo horretan, izaten ari diren regenarratiben kopurua izugarria eta zoragarria da. Pinturatik abiatuta egiten ari da, Bianca Nguemaren Speaking Bodies adiskidetze-ariketa bezalako proiektuekin, non emakume beltz biluziak marrazten dituen eta elkarrizketa egiten dien haien gorputzarekiko harremanari buruz. Era berean, hor dugu Montserrat Anguianoren Reinas ere, errege-leinuarekin edo halakorik gabe, Mendebaldean gehiegi ezagutu ez arren zerbaite-

gatik nabarmendu diren emakume beltzak erakusten dituena. Tina Mbak kartoiaren gainean margotzen du; kalean dagoen material bat da, doan edo mihise bat baino merkeago ateratzen dena, eta ondo frogatzen du bitarteko faltak ez duela zertan geldiarazi behar ikusezin bihurtu direnen irudikapena eta sormena. La Flor del Tamarindo lanean, bere bizitza markatu duten emakume beltzak margotzen ditu, lagunak eta bizilagunak, eta egutegi bihurtzen ditu, igarotzen den hilabete bakoitzean ikus ditzagun. Oh Mercyk amatasuneko egoera arrunten marrazkiak erabiltzen ditu, baina, oraingoan, ama ez da zuria. Eta Nadine Mnemoik denetarik egiten ari diren eta makina bat lekutan dauden milioika emakume beltzen formak sortzen ditu.

Horiek adibide batzuk besterik ez dira. Fotografian, hauek ditugu: Agnes Essonti, Rubén H. Bermúdez, Nelida (The Worst Art), Asunción Lola, Angélica Dass, Sol Bela, Megane Mercury, Tina Alabama, Blue Spit, Okobe, Laurent Leger Adame eta Pisacielos. Bakoitzak gai bat eta irudikatzeko modu bat du: zenbaitek afro-ospakizunaren alde egiten dute, beste batzuek salaketa nahiago dute; batzuek Pantoneren kolpeekin desmuntatzen dute arraza, eta beste batzuek mundu berriak sortzen dituzte, non gure gorputzek gozatzen eta distiratzten duten eta, duten forma dutela, zalantzarik gabe, ederrak diren.

**Erakusten dute beren irudiak oso urrun daudela orain arte arteetan ikusi dugun horretatik (baina kalean ikusi dugu), gure ikusteko modua deskolonizatzen ari direla eta lehertzen ari direla inposatu zizkiguten eta kanpoan utzi edo desitxuratu gintuzten edertasun-kanonak. Geldiezinak dira, eta haien diskurtsoa, blokeatu nahi dituzten algoritmo arrazistak gorabehera, gero eta urrunago iritsi, eta gero eta ozenago entzuten da.**

**Dena ondo bidean, berandu baino lehen, hautsa astinduko diegu gure ispiluei.**



# TAKOIAK

# ILTZATUZ:

**GOGOETAK ETA BALIABIDEAK, DIBERSEXFIOBIARI ETA SARE SOZIALETAKO GORROTO TRANSFOBIKOARI AURRE EGITEKO.**

## **Aitzole Araneta**

“Isiltasuna sekula ez da agertzen kalumnia eta difamazioaren erreplika gisa erabiltzen denean bezainbesteko nagusitasunez”.

*Joseph Addison, idazlea eta politikaria (1672-1719)*

Ez dut xisteratik untxirik aterako esaten baldin badut sare sozialen erabilera masifikatu egin dela azken hamarkadan, erraz eta doan eskuratu ahal direlako. Hiperkonektibitatea sekula baino ageriago dago, are gehiago belaunaldi gazteen artean, Interneteko sarbidea duen terminal batekin (edo gehiagorekin) koskortu baitira ia.

Testu honen helburua ez da Instagram, Twitter, TikTok eta antzekoak deabrutzea. Izan ere, dagoeneko ezin konta ahala dira horien erabilerari edo, hobeto esanda, gehiegikeriari lotuta unibertso gaitz guztien dekalogoak biltzen dituzten artikulua, aldi berean sortzen ari diren zibilizazioko hondamendiari buruzko profeziarik ikaragarrienak azaltzen dituztenak. Era berean, ez ditut erromanizatu nahi. Gehiegi dira emakume eta, gainera, trans modura ikusarazten den emakume gisa nozitu ditudan gorabeherak.

**Nolanahi ere, bat etorriko gara adierazteko sareak gehiegi erabiltzeak ondorioak izan dituela ezagutza, jarduerak eta balioak zabaltzeko eta komunikatzeko beste bitarteko bat bezala erabiltzen ditugunontzat: garai batean hedabide tradizionaletan ikusezinak ziren edo normalean agertzen ez ziren kolektibo eta komunitateen agerpena eta ikusgarritasuna –hala nola trans komunitatearena–, berdinen arteko harreman azkarra, komunikazio bizkorragoa, hizkuntzaren ekonomia eta ikus-entzunezkoetan oinarritutako zabalkundea, eta, era berean, gezurrak, fake news direlakoak eta muturreko iritziak zabaltzea, polarizazioa eta, ondorioz, hater eta trollen jarduera.**

Hori esanda, gogoeta labur bat egin eta jarraibide batzuk eman nahi ditut egungo garai fobikoetan ager litezkeen arazoei aurre egiteko, esaera herrikoiak dioen bezala: hobe baita prebenitzea sendatzea baino. Edo umore sarkastiko eta purpurina pixka batekin: hobe ta-koia ondo iltzatzea emozionalki zabuka herren egitea baino.

1. Ez du nahi duenak kaltetzen, ahal duenak baizik, edo “haters gona hate”.

*“Steven Tyler ematen duzu. Hara zer morroia”. “Gizonezko bat zara, eta, gainera, gizonezkoa ematen duzu”. “Tratu txarren emalea eta erasotzailea zara”. “Puta izateko ere ez zenuke balio, gizajoa”. “Ez zara inoiz emakume izango, hain itsusia izanda”. “Gaixorik zaudete denok”... Horra hor urte hauetan niri edo transexualak diren beste emakume batzuei edota hegemonikoa ez den orientazio edo identitate sexuala duen jendeari sareetan eskaini dizkiguten “gozokerietako” batzuk.*



**Alabaina, irainak oso oldarkorrek izan arren, ikasi egin behar dugu erabateko ezetza ematen gure autoestimua boxeo birtualaren ringaren zerbitzura jartzeari, hor nahi bezala baitabiltza diskurtso LGTBI-fobikoak eta transfoboak. Hau baita ikasgai lehena eta baliotsuena: hitz batzuek min ematen dute, baina gure esku dago geldirik uztea, betiko trolleigu izorratzeko gustua eman gabe. Sareetan dagoen inork ezin du benetan jakin nor naizen nik baino hobeto. Eta ondotxo dakigu ederragoak, zoragarriagoak, kultuagoak garela... eta, gainera, arrazoi dugula.**

2. Gorrotoaren aurrean, umorea, eta, ahal badugu, datuak: Batzuetan logikoa da sutan jartzea, baina, une jakin batean erantzutea erabakitzen badugu, mezu horiek antzeman eta la-guntza eman dezakegu neutralizatzeko, eta haien hedapena saihestu. Sarkasmoz, ironiaz, umore beltzez edo, besterik gabe, umorez erantzun dezakegu. Egokia den daturen bat emanez gero, iraintzen gaituenari emandako erantzunak aho asko isildu-ko ditu.

***Adibide bat (benetakoa): esaten badigute “Ez da harritzekoa zuri patologia mentalaren diagnostiko bat ematea. Burutik eginda zaude”.***

***Hau erantzun dezakegu: “Jakina, eta, gainera, ederki iraba-zia dut diagnostiko mentala; izan ere, lege batek behartuta, psikiatra batek adierazi behar du gaixorik nagoela patologia mental batekin, eta gorputza aldatuta baizik ezin da hartaz sendatu!” (2007an onartu eta 2023ra arte indarrean egon den Estatuko lege batek transexualitate-egoeran gaudenok be-hartu gaitu psikiatra edo psikologo kliniko batek emandako gaixotasun mentalaren diagnostiko hori jasotzera).***

3. Albiste positiboak sortzea eta zabaltzea: Benetako informazioan oinarritutako edukia modu enpatikoan sortu eta zabaltzeak desaktibatatu egiten ditu fake news eta gezurrak; TERF, hater eta trollak kikiltzen ditu, eta, gainera, pertsonalitate gizatiarragoa proiektatzen du nigan, berdintasun eta elkartasunekoa. Oso eraginkorra da zure sareetan jarrera baketsua, positiboa eta umoretsua izatea, hater edo trollak gogoeta egin dezan bere mezuen ondorioei buruz eta mezu horiek jasotzen dituzten pertsoneri egin ahal dieten kalteari buruz. Mezuak argia izan behar du, eta errespetuz esan behar da, gorrotoari ez baitzaio gorrotoz aurre egin behar. Horretarako, be-harrezkoa da sormena erabiltzea, ondo informatuta egotea, gai iza-tea diskurtso polarizatzaile edo gorrotozko bat detektatzeko.

“Transexualidad: transiciones, detransiciones y arrepentimientos en España”<sup>1</sup> azterlaneko adibide bat (benetakoa): “Trantsitua has-ten dutenen % 2 baizik ez da lehenagoko egoerara itzultzen”.

**4.** Iruzkirik gaiztoena salatzea, blokeatzea, ezikusiarrena egitea edo like sakatzea: Egia da gorroto-diskurtsoaren xede diren pertsonen erreakzio gehienak hauek direla: blokeatzea, salatzea edo isilaraztea. Hala ere, aurrekoa bezain egia da zuri bidalitako iruzkinik gaiztoenaren aurrean isiltasun erabatekoak edo ondo sakatutako like batek, noizean behin, zur eta lur utziko dituela gogo handiz zuri min eman nahi dizutenak.


**Zarataren aurrean, isiltasuna, bakea... eta maitasuna (like itxurarekin).**

**5. Behar baduzu, hartu atsedeen bat sareetan: Superheroiak gara, baina ez dugu une oro frogatu behar. Noizean behin, onuragarria eta osasungarria izan daiteke pixka bat haizatzea eta gure adats zoragarria sareetatik kanpo astintzea.**

---

1. M. Pazos Guerra, “Transexualidad: transiciones, detransiciones y arrepentimientos en España”. Genero Identitatearen Unitatea, Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzua, Doctor Peset Unibertsitate Ospitalea, Valentzia, Espainia. 2020.

**María Elgezua**



*Burlesque*



*Xperience*

# BURLESQUEA, SEDUKZIO- ETA AHALDUNTZE- TRESNA GISA

## María Elgezua

Zergatik erabili burlesquea terapia gisa zeure burua esploratzeko eta zeure sedukzio-potentziala aurkitzeko, eta zer harreman du gorputz disidenteeek ziberindarkerien aurrean egiten duten borrokarekin? Galdera hori izan da tailerraren ardatza. Bertan, modua bilatzen dut emakumeak ahaldundu daitezen, beren gorputzaren irudi berri batekin, nahitaez perfektua ez den gorputz batekin, sentsual eta limurtzaile sentitzeko eta beren feminitate naturala, askea, garbia, sortzailea eta adierazkorra aurkitzeko.

Burlesquea arte inklusiboa da, ez du gorputzez ulertzen, eta ezaugarri mimetiko eta gehiegizkoak erabiltzen ditu gai batez iseka egiteko, edo, bestela, gizarteak onartzen ez duena goraiatzeko edota gizartearentzat esanguratsua dena gutxiesteko. Horrela, burlesqueak espazio seguru bat eskaintzen digu ibiltzeko, geure burua ikertzeko eta gure eguneroko bizitzan, gaitzespen sozialaren edo apalategi bateko artikulua soil gisa seinalatzen gaituzten etiketen beldur, izan ohi ez garen emakumeak izateko.

Parodia, gehiegikeria, pikardia, sentsualitatea, dotorezia... Horiek dira hain boteretsua den tresna hau elikatzen duten elementuetako batzuk, gure sentsualtasuna eta balioa aurkitzeko eta ahalduntzeko hain osoa egiten dutenak.

***Burlesque*aren munduan, ez dago erantzunik zer den erotikoa eta zer ez galderarako. Pertsona bakoitzaren erotikarekin jolasten da, ondokoarena ez bezalako gorputz batean bizi den izaki gisa hartuta, edertasun-kanonik jarraitu gabe. Ikuspegi feministatik eta autozainketatik landu dugu hori, eta tailer hau abiaburu bat da onarpenerako eta emakumea plazer eta isekaren xede gisa irudikatzen duen ideia eraisteko.**

Mendebaldeko edertasun-kanonek gorabeherak izan dituzte, argaltasuna gaitzetsi, eta gaixotasuntzat ere jo baita. Bestalde, gorpuzkera handia zorientasunaren eta oparotasunaren sinbolo gisa ikusten zen kultura eta gizarte askotan. XIX. mendean, berriz, komunitate medikoak lizuntzat jo zuen gizona izatea. Osasunarekiko kezka faltsu hori da, beste arrazoi askoren artean, diskurtso lodifoboaren oinarria, eta, gaur egun, gure ohituren ia % 100 kutsatzen du. Gorputz-kanon normatiboetan sartzen ez diren gorputzak gaitzesten dira –eta normatibotzat hartzen da komunitate medikoak hala izatea erabaki duena–, iraindu, arbuiatu eta baztertu egiten dira, eta halako moduz gizagabetzen dira, non gorputz horietan bizi garen pertsoneri balio guztia kentzen baitigute.

Gizakiak lehentasuna eman ohi dio ongizateari, plazerari edo batek besteen gaineratik arrakasta izateari: norberaren gozamina lortzeko xede hutsarekin, hurkoari kalte egiteko egarri horri. Ez gutxitan, gorpuzkera handiko pertsonak erakargarri gisa aurkezten dira zirku edo azoketan, beren gorputzak gutxietsiz, iseka eta erasoen xede bihurtuz, desberdinak izateagatik.

**Zein da aldea gaur egun? Iraultza digitala eta pantailaren atzeko anonimotasunak sinbiosi bat sortzen dute online munduaren eta offline munduaren artean, eta, hor, bi aldeetatik erabiltzen dute indarkeria gorputz disidenteen aurka.**

Gorputz disidenteeek era askotako pertsonak hartzen dituzte barne, dagokigun hutsunea bilatu behar izan baitugu, baimena eta barkamena eskatuz, gure gorputzen kontra izandako kritiken eta intolerantzien aurrean. Nola borrokatu gure espazioa lortzeko? *Burlesquea*, performancea, dantza eta erotika erabiliz erresistentzia gisa.

**Internetek eta sare sozialek dena irauli dute, eta bide eman dute orain arte izan ez diren pertsonen arteko harremanak izan daitezen. Hizpide dugun testuinguruari dagokionez, leihoa ireki diete milioika laguni zure gorputzaz iritzia eman ahal izateko. BAINA –hitz larriz– sare sozialak bozgorailua ere badira. Agertoki bat, ozen hitz egiteko eta ahalduntze eta onarpen pertsonaleko mezu hau partekatzeko, zure kezka berberak dituen pertsona baten ikuspegitik. Denok behar dugu ikonografia bat, irudi erreferente bat edo benetako pertsona bat, bakarrik sentitzen garenean harengana jotzeko.**

Elkarrizketan esandako esaldi bat berreskuratuko dut: *“zerbaiti izena jartzea existitu dadin”*. Hori oso garrantzitsua da, garrantzitsua da gorputzen existentzia espazio guztietan *normalizatzeko* eta ikusarazteko. Horregatik, tailerrean, dantzaren mugimenduaren bidez egiten dugu topo, eta geure gorputzen gaineko kontrola lortzen dugu, errealitate digital intoleranteari aurre egiteko modua ematen digun indarra eta segurtasuna eskuratu ahal izateko.

**Egia da sare sozialetan erreferenteak diren pertsonen beren burua gehiegi erakusten dutela –itu perfektu bihurtzen dira horrela–, baina, aldi berean, arreta eta ikusgarritasuna lortzen dituzte pertsona gehiagorengana iristeko. Nire ustez, *“Hitz egin dezatela gaizki nitaz, baina hitz egin dezatela”* esaldi famatuak ezin hobeto laburbiltzen du sare sozialetako aktibismoa. Zer da subertsiboagoa, gorputz ez-normatiboekiko intolerantziaren aurrean, erotikatik jardutea eta, gainera, argitaratzea baino?**



Tailerraren bidez, jasaten ditugun indarkeriak erakutsi eta haiek gainditzen irakatsi nahi izan dugu, indartsuago bihurtuz eta gure gorputzak errespetatuz, azken finean, azal horretan bizi baikara. Gure gorputzek jasaten duten tratu txar eta estres maila da adierazle nagusia, gaur egungo gizarteak normatiboaren arrastotik ateratzen den guztiaren aurka nola jokatzeko duen ulertzeko.

Azken batean, burlesquea terapia gisa erabil daitekeen arte-modu bat da, norberaren onarpena eta sexualitatearen adierazpen osasungarria sustatzen baititu. Era berean, lagungarria izan daiteke pertsonak beren beldur eta aurreiritziei aurre egin diezaieten, eta gorputz eta itxuraren arloan ezarritako arau sozialei aurka egin diezaieten. Gainera, burlesquea ahalduntzen duen modu dibertigarria da lodifobiari eta pertsona askok pantailaren bidez egunero jasaten duten beste diskriminazio-mota batzuei aurre egiteko.

**Gure gorputzak bizitzeko duinak dira eta, beraz, erotikaren eta desinhibizioaren ikuspegitik lan egin dugu: sentitzen utzi ez digutenagatik. Edertasun-kanonei aurre eginez: izaten utzi ez digutenagatik. Eta ikuspegi feministatik: bizitzen utzi nahi ez digutenagatik.**



# ZIBER- INDARKERIAK ETA GAZTERIA

## Itziar Errasti

Askok nabaritu dugu nola bihurtu diren Internet eta sare sozialak ezinbesteko tresna gure eguneroko bizitzan. Tresna horiek aukera ematen digute ingurunearekin eragin-trukea izateko berehala eta modu bisualagoan, eta gure eguneroko bizitzako zatiak erakusteko publiko mugagabe bati. Horregatik, milaka interakzio sozial ikusten ditugu Interneten: argitalpenak, istorioak, iruzkinak edo bideoak ikusten ditugu; ikus-entzunezko eduki horren bidez, gure ingurunearekin komunikatzen gara. Era berean, funtsezkoa da argitzea sare sozialek aurrerapen bat dakartela gure gizartean, berehalakotasunagatik eta informazio asko lor dezakegulako “klik” huts bat eginez; baina ez dira ahaztu behar berekin dakartzaten arriskuak, besteak beste, ziberindarkeriak, pribatutasunaren galera eta gehiegizko erabilera. Ziberindarkeria eta iruzkin iraingariak etengabeak dira online sozializatzeko moduan.

Sare sozialen erabileraren ondorioz, hainbat ziberindarkeria-mota daude: genero-ziberindarkeria, ziberjazarpena, gorroto-diskurtsoa, *sexpreddinga*, *sextorsiona* edo *sharentiga*, besteak beste. Hori gertatzeak ez gintuzke harritu behar, sare sozial bakoitzaren atzean pertsona bat dagoelako; beraz, “zuzenean” gertatzen denaren isla besterik ez da. Ildo berean, indarkeria berberak errepikatzen dira, eta onartu eta normalizatu egiten dira gure gizartean, aurrez aurreko indarkeriaren ezaugarri desberdinekin, jakina. Beraz, oraindik lan

handia dago egiteko kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren arloan. Baina zergatik normalizatu da Internet bidez irainak eta gorrotoa jasatea?

**Belaunaldi honetako gazteak sare sozialen bidez komunikatzen dira beren artean, horrek aukera ematen baitie lagunekin (etapa honetan ezinbestekoak) edozein unetan eta edonon hitz egiteko. Gainera, online sozializazioa aukera bikaina da lagunekin harremanetan egoteko, jende berria ezagutzeko eta ikuspuntu desberdinak ulertzeko. Hala ere, hainbat bertute dituen arren, online komunikazioak gabeziak eta akatsak ere baditu, hala nola enpatizatzeke zailtasuna sare sozial batean hitz egitean edo beste pertsona batzuen irudiak ikustean. Askotan, badirudi gizarteak ahaztu egiten duela sare sozialetan kontsumitzen dugun eduki horren atzean benetako pertsonak daudela, jakina, sentimenduak dituztela, eta gure iritziak eragina izango duela haien autokontzeptuan edo osasun mentalean.**

Osasun mentalari dagokionez, nire ustez, gainditu gabeko irakasgai bat dugu: jazarpen psikologikoak ere min ematen duela ulertzea eta onartzea. Behin baino gehiagotan entzuten dugu ahozko erasoak nola justifikatzen diren, “txantxa da” edo “ez da hainbesterako” esanez, eta nola kentzen zaion garrantzia jazarpen psikologikoari. Kontzientzia hartu behar dugu irainek, mehatxuek edo umiliazioek min ematen baitute, eta kaltea ikusten ez bada ere, jazarpen-zantzurik ez dagoelako, gorroto-eta errespetu-falta horren hartzaileak sufritu egingo baitu.

**Bestalde, batzuetan, ziberindarkeria adierazpen-askatasuntzat hartzen da ingurune digitalean. Adierazpen-askatasunaren eta errespetu-falten artean dagoen lerro finak zaildu egiten du ziberindarkeria-mota batzuk atzematea, hala nola gorroto-diskurtsoa Interneten. Pertsona batzuk sare sozialetan gehiegi egoteari lotuta dago hori; jazarleek hala justifikatzen dute, behintzat. Alabaina, ez dugu ahaztu behar, gure eguneroko kontuak sareetan erakustea edo informazio pertsonala ematea arriskutsua izan daitekeen arren, ez dela legez kanpokoa; beste pertsona batzuei iruzkin iraingarriak egitea eta haiek ez errespetatzea, berriz, bada.**

Sareko jazarpena errazten duten faktoreetako bat da edukiak azkar biralizatzen direla; are gehiago, jazarpena errazteaz gain, ugaritu egiten du, jazarpen horretan askoz lekuko eta parte-hartzaile gehiago baitaude.

**Anonimotasuna da Interneteko jazarpena errazten duen beste faktoreetako bat. Askotan ikusten dugu aurrez aurre besteentzen aurka indarkeria sekula erabiliko ez luketen pertsonak nola erabiltzen duten ziberindarkeria; pantaila baten atzean ezkutatuta, erasotzeko libre sentitzen dira inolako eskrupulurik gabe.**

Biktimaren erruduntasuna da ziberindarkeria-kasuetan ikusten dugun ondorioetako bat. *Sexpreading* kasuetan –hau da, beste pertsona batzuen argazki intimoak birbidaltzea haien baimenik gabe–, gizarteak biktima erruduntzat jotzeko joera du, “horrelako argazkiak bidaltzeagatik”.

**Bestalde, sare sozialetan, gorputz-aniztasunari iseka egiten zaio, eta kritikatu eta indarkeriaz hartzen da. Pertsona horiek jasaten duten jazarpena ikusteko, jende beltzaren, lodiaren edo LGTBIQ+ kolektiboko lagunen argitalpenetako iruzkinak irakurri besterik ez dugu egin behar, zergatik-eta gizartean onartuta dagoenaren parte izan gabe existitzeagatik. Ezin ditugu ahaztu askotariko gorpuzkerarekiko indarkeria-mota horrek izan ditzakeen ondorioak, batez ere nerabeengan. Elikadura-jokabidearen nahasmenduak, dismorfia edo autoestimubaxua oso ohikoak dira, eta, neurri handi batean, ziberindarkeria-mota horren ondorio dira.**

Amaitzeko, funtsezkoa iruditzen zait sareetako aktibismoa aipatzea. Ziberindarkeriei buruz hitz egiten denean, sare sozialak kriminalizatzeko joera dugu, baina, azken finean, sare sozialak komunikatzeko bitarteko bat baizik ez dira, eta hedabide horretan ikusten dugun indarkeria pertsonak erabiltzen dute. Horregatik, ezinbestekoa da, besteak beste, feministak, LGTBIQ+, arrazakeriaren aurkakoak edo *body positive* diren aktibistak bilatzea eta erreferente gisa izatea, haiek erakutsiko baitigute sare sozialen alde onuragarria eta aberasgarria. Arreta gazteengan jartzen badugu, zalantzarik gabe, horrelako erreferenteak behar dituzte, aurkako ingurune batean –ingurune digitala batzuetan horrelakoa baita– seguru sentitu ahal izateko.

**#ciberbiolentziaisilaraztendu**



enplegua, gizarte inklusioa eta  
berdintasuna sustatzeko saila  
Departmento de Empleo,  
Inclusión social e igualdad



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO